



Herritar agurgarria:

Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak eta zeure Udalak Debabarrenako etxeko konpostaketa kanpaina berri bat jarri dute abian.

Etxeko konpostaketa erraza eta jasagarria da, eta konpostatzen duten herritarrei aukera ematen die etxean sortutako hondakin organikoak (sukalde-hondarrak, hostoak, belarra, kimaketa-hondarrak, etab.) murrizten parte hartu eta, era berean, ongarri natural bat lortzeko, konposta.

Kanpaina honetan parte hartu eta konposta egile bihurtu nahi baduzu, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak eskura jartzen dizu aukera hori:

NOLA EMAN IZENA

Konpostagailua eskatu dezakezu zure datu pertsonalak, telefono zenbakia eta helbidea emanez, hiru bide hauekoren batean:

- **902 102 885** telefonora deituz.
- **info@debabarrenakonpostatzen.com** helbidera e-mail bat bidaliz.
- Interneten, **www.debabarrenakonpostatzen.com** web orriko "Kanpainan izena eman" atalean.

ZER ESKEINTZEN DA KANPAINAN

Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak doan emango dizu konpostagailu bat, iraulgailu bat, konpostaketarako gidaliburua eta ikastaro baterako gonbitea luzatuko dizu, lehenengo egunetik konpostaketa egin ahal izateko.

MATERIALEN BANAKETA

Material banaketa heziketa ikastaroan bertan egingo da, eta bertaratu ahal izateko, izena eman duten guztiei telefono dei bat egingo zaie. Zeure herrian gutxienez heziketa ikastaro bat antolatuko da.

JARRAIPEN BISITAK

Nahiz eta konpostaketa gauza erraza izan, zalantzak izango dituzulakoan gaude. Horregatik, gure teknikariek materialak jaso eta hiru hilabetera visita bat egingo dizute izan ditzakezun zalantzak argitu eta aholkuak emateko.

Etxeko konpostaketa kanpainako informazio guztia www.debabarrenakonpostatzen.com web orrian duzu. Gogoan izan, behar duzun adina galdera egin diezaiozula Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateari 902 102 885 telefonora deituz.

Adeitasunez,

Arcadio Benítez Jauna

Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko Lehendakaria

Murriztu zure hondakinak, konposta lortu!